

Gure uraren kalitatea ezin hobea da


Eta ez da guk esaten dugulako bakarrik; halaxe diote barneko eta kanpoko laborategiek gure ura bikaina dela ziurtatuz urtero egindako 1.000 analisi baino gehiagok.

Urbideren Kontroleko eta Zaintzako unitateak kaptazioetako uraren kalitatea kontrolatzen eta prozesuak gainbegiratzeko dituen banaketa-sareetan, biltegietan eta tratamendu-estazioetan. Badakizu, beraz: iturriko ura kontsumitu berme osoz.

Primerako ura bermatzeko parametro berriak

Ur-kontsumoaren kalitatearekin, kontrolarekin eta hornidurarekin lotutako irizpide tekniko-sanitarioak eguneratu dira Europako araudiak eta 2030eko Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuek xedatutakoaren arabera. Eta Urbiden hasiak gara horiek ezartzen.

Horren helburu nagusia da esparru juridikoa ezartzea, uraren edozein kutsadurek sortzen dituen ondorio kaltegarrietatik osasuna babesteko, eta informazioa hobetzea, herritarrek edateko urarekiko duten konfiantza handitzeko.



Gehiago jakin nahi al duzu?

Kontsultatu Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko EAEko Kontsumo Uren Informazio Sistema. urbide.eus helbideko "Uraren kalitatea" atalean sartuta ere ikusi ahal izango duzu.

Ba al zenekien Araban iturriko ura botilakoa bezain ona dela? Eta badu beste onura bat ere:



Kalitatea

Urbiden, osasun-kontrol zorrotza egiten diogu urari



Ingurumena

Plastikozko ontzien % 20 bakarrik iristen dira tratamendu-planta batera

Gehiago jakin nahi al duzu? Hemen kontatuko dizugu: www.urbide.eus

